

**Berrizko herri haurreskolan umeak
dituzten familientzako dirulaguntzak
arautzen dituen araudiaren behin-betiko
onarpena**

2016ko ekainaren 6ko 107.zenbakia duen "BAO" Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu da Berrizko herri haurreskolan umeak dituzten familientzako dirulaguntzak arautzen dituen araudiaren behin-behineko onarpena eta jendaurrean azaltzeko epea gainditu ondoren ez da erreklamaziorik aurkeztu. Beraz, aipatu den erabaki hori behin betiko izaera du.

Udal araudia bere osotasunean argitaratuko da.

**Aprobación definitiva de la normativa
reguladora de subvenciones a familias
con hijos/as en la haurreskola pública del
municipio de Berriz**

Publicado en el "Boletín Oficial de Bizkaia" número 107, de 6 de junio de 2016, la aprobación inicial de la normativa reguladora de subvenciones a familias con hijos/as en la haurreskola pública del municipio de Berriz y dado que, transcurrido el plazo de exposición al público, no se han presentado reclamaciones, dicho acuerdo deviene a definitivo.

Se procede a la publicación íntegra de la normativa.

Berrizen, 2016ko uztailaren 7an

ALKATEAK

Rolando Isoird Refoyo



Iturritza 51 - 48240 Berriz
Tel.: 946 824 036 / 946 824 584
Faxa: 946 827 950
E-maila: udala@berriz.eus
P4802300F
www.berriz.eus

BERRIZKO HERRI HAURRESKOLAN UMEAK DITUZTEN FAMILIENTZAKO DIRULAGUNTZAK ARAUTZEN DITUEN ARAUDIA

1.- Helburua eta zuzkidura

Diru-laguntza hauen xedea da laguntzea elkarrekin adosten etxeko eta laneko bizitza eta Berrizko haurreskolan umeak dituzten familiei laguntzea haurreskolako zaintza eta hezkuntza gastuak ordaintzen. Banakako laguntza horien hartzailak izango dira lanean ari diren gurasoak, edota arazo bereziak dituztenak, dela ekonomia aldetik, dela familiako egoera bereziagatik (familia ugariak izateagatik, umaldi bakar batean ume bat baino gehiago ekarri izanagatik, ume elbarriak izateagatik, e.a.)

2.- Onuradunak

Haurreskolarako dirulaguntza eskatzeko ondoko baldintzak bete beharko dira:

1. Berrizen erroldatuta egotea.
2. Adin txikikoaren guraso-ahala, zaintza, tutoretza edo jagoletza daukan/ten gurasoak/ek lanean aritzea beren kontura edo inorentzat, edo lanpostu bat lortzeko prestakuntza prozesuan sartuta egotea edota lana bilatzen aritzea.
3. Adin txikikoak eskatzailearekin bizitzea eta Berrizko herri haurreskolara joatea.
4. Dirulaguntzak jasotzea eragozten duten azaroaren 17ko Dirulaguntzen gaineko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan

NORMATIVA REGULADORA DE SUBVENCIONES A FAMILIAS CON HIJOS/AS EN LA HAURRESKOLA PÚBLICA DEL MUNICIPIO DE BERRIZ

1.- Objeto y dotación

El objetivo de la subvención es favorecer la conciliación de la vida familiar y laboral, colaborando en las cargas familiares derivadas del cuidado y educación de menores inscritos en la Haurreskola pública del municipio. Estas prestaciones económicas individualizadas, se dirigen a familias cuyos progenitores desempeñen una actividad laboral y/o que tengan especiales dificultades de carácter económico o sociofamiliar (familias numerosas, familias a cargo de menores por parto múltiple, discapacidad...).

2.- Personas beneficiarias

Para solicitar subvenciones de la Haurreskola, habrá que reunir los siguientes requisitos:

1. Estar empadronado/a en el municipio de Berriz
2. Encontrarse el/la progenitor/a o progenitores/as, titulares de la patria potestad, guarda, tutela o custodia del menor, trabajando por cuenta propia o ajena, en período de formación para el empleo y/o búsqueda activa de empleo.
3. Que los o las menores convivan con la el/la solicitante y asistan a la Haurreskola pública del municipio.
4. No estar incurso/a en ninguna de las

zehaztutako motiboetatik bakar bat ere ez izatea.

circunstancias señaladas en el artículo 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

3.- Epeak

Urtarriletik maiatzera bitarteko dirulaguntza jasotzeko eskariak aurkezteko epea **ekainaren 1ean hasi eta ekainaren 30ean bukatuko da. Aldiz, ekainetik abendura bitarteko dirulaguntza jasotzeko eskaria aurkezteko epea abenduaren 1ean hasi eta abenduaren 30ean amaituko da**, eta epealdi horretako dirulaguntza hurrengo urtarrilean ordainduko da.

4.- Eskariak

Eskabide orriarekin batera ondoko dokumentuak aurkeztu beharko dira Udal Erregistroan, bakoitzarekin batera jatorrizko dokumentua ekarrita, elkarrekin konparatzeko:

1. Eskatzailearen NAN fotokopia.
2. Eskaria egiten den urtaldiaren aurreko urtaldiko errenta aitopenearen kopia, hura aurkeztu beharra duten familiako kide guztiena. Baldin aitopena aurkezteko derrigorrik ez balego, hori hala dela frogatzen duen Foru Ogasunaren ziurtagiria ekarriko da, eta berarekin batera, izan diren diru-sarrerak frogatzeko dokumentuak, hala nola familia unitateko kide guztiek aurreko urtaldian izandako diru-sarreraren berri ematen duten ziurtagiri edo dokumentuak, dagokion enpresak edo organismoak eginak.

3.- Plazos

El plazo de presentación de solicitudes para percibir la subvención correspondiente al período comprendido entre los meses de enero y mayo, ambos incluidos, **se abrirá el 1 de junio y se cerrará el 30 del mismo mes. Para el abono de los meses de junio a diciembre el plazo de presentación de solicitudes se abrirá el 1 de diciembre y se cerrará el 30 del mismo mes**, abonándose la subvención en el mes de enero siguiente.

4.- Solicitudes

Junto con la instancia deben presentarse en el Registro Municipal los siguientes documentos que irán acompañados de los correspondientes originales para su cotejo:

1. Fotocopia del DNI de la persona solicitante
2. Copia de la declaración de la renta correspondiente al ejercicio anterior a la solicitud, de todos los miembros de la unidad familiar con obligación de presentarla. En el supuesto de no estar obligados a presentarla, se aportará certificado expedido por la Hacienda Foral en éste sentido, junto con otra documentación que acredite los ingresos obtenidos, tales como certificados y/o documentos acreditativos de los ingresos obtenidos el año anterior de todos los miembros de la unidad familiar, expedidos por la

empresa u organismo competente.

3. Familia liburuko inskripzio guztien kopia.
 4. Haurreskolak eginiko ziurtagiria non egiaztatuko den, batetik, ikaslea haurreskola horretan ari dela eta, bestetik, ordaindu diren kopuruak.
 5. Familia Ugariaren tituluaren fotokopia, balegokio.
 6. Adin txikikoaren elbarritasun ziurtagiriaren fotokopia, balegokio.
 7. Familia unitateko kideen Lan Bizitzaren txosten eguneratuaren kopia, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak emana.
 8. Eskatzaileak lan egiten duen edo prestakuntza hartzen ari den enpresa edo zentroko egiaztagiria, azalduz zein den eskatzailearen lanaldia edo ordutegia.
 9. Aitorpen erantzulea esanez eskatzaileak ez duela jasotzen kontzeptu berdinatik ezelango dirulaguntzarik beste erakunde publiko nahiz pribaturen aldetik.
 10. Espedientea osatzeko beharrezkotzat jotzen den beste edozein dokumentu egiaztatzeko eskatzailearen familia unitatearen gaitasun ekonomikoa edo bere familia edo gizarte egoera.
3. Copia de todas las inscripciones del Libro de Familia.
 4. Certificado de la Haurreskola, donde, además de constar que el alumno o alumna está inscrito/a en el mismo, deberán constar las cantidades abonadas.
 5. Fotocopia del Título de familia numerosa, en su caso.
 6. Fotocopia del Certificado de minusvalía del o de la menor, en su caso.
 7. Informe de vida laboral actualizado de quienes integran la unidad familiar, emitida por la Tesorería General de la Seguridad Social.
 8. Justificante de la empresa o centro donde la persona solicitante desempeña su actividad laboral o recibe formación, en el que se indique la jornada y horario de la misma.
 9. Declaración responsable de percibir/no percibir otras prestaciones por el mismo concepto de entidades públicas o privadas.
 10. Cualquier otra documentación, tendente a demostrar la capacidad económica de la unidad familiar, persona solicitante o su situación familiar o social que se considere necesaria para completar el expediente.

Eskaera aurkezte hutsarekin eskatzaileak baimena ematen dio Berrizko Udalarri dirulaguntza deialdi honetan eskatutako datuak kontsultatzeko: bizikidetza unitatea eta zerga-betebeharrak ordaindu izana.

Al presentar la solicitud, quien solicita autoriza al Ayuntamiento de Berriz a consultar los datos solicitados en la presente convocatoria: unidad de convivencia y cumplimiento de obligaciones tributarias.

5.- Instrukzioa eta ebazpena

Eskariak aurkezteko epea amaitu ondoren, aztertu egingo dira eta osatu gabeko eskariak aurkeztu dituztenei hamar eguneko epea emango zaie falta den dokumentazioa aurkezteko.

Epe horren ostean, udal teknikariek eskariak baloratuko dituzte, Informazio Batzordeak bere irizpena jakinarazi diezaion erabakia hartu behar duen organoari (Alkatetzari).

Behin ebazpena eman ondoren, interesatuen jakinean jarriko da eta 10 eguneko epea emango zaie alegazioak aurkezteko.

Alegazioak Informazio Batzordeak onartu edo ezetsiko ditu eta, behar diren kasuetan, ebazpen organoak berriro emango du beste irizpen bat.

Alegaziorik edo ukorik aurkezten ez bada, emandako dirulaguntza onartutzat joko da.

6.- Bateragarritasuna

Kontraktorik adierazi ezik, dirulaguntza hauek bateragarriak dira helburu bera duten beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatuen dirulaguntzekin. Nolanahi ere, dirulaguntza guztien zenbatekoen batuketak ezin izango du gainditu familiek helburu horretarako izan duten gastuaren zenbatekoa.

5.- Instrucción y resolución

Una vez finalizado el plazo de presentación de solicitudes, se analizarán las mismas y se notificará a aquellas personas que hayan presentado solicitudes incompletas, a fin de que, en un plazo de diez días, aporten la documentación necesaria.

Tras ese plazo, el personal técnico municipal evaluará las solicitudes para que la Comisión Informativa proponga al órgano resolutorio (Alcaldía) su dictamen.

Una vez emitida la resolución, se notificará la misma a las personas interesadas y cabrá la posibilidad de alegación en un plazo de 10 días.

Las alegaciones serán admitidas o denegadas por la Comisión Informativa y, en caso necesario, el órgano resolutorio emitirá nuevo dictamen.

En caso de no presentar renuncia o alegación, se entenderá aceptada la subvención concedida.

6.- Compatibilidad

La presente subvención es compatible con aquellas que puedan conceder otras administraciones o entidades con el mismo objetivo, siempre que no se indique lo contrario. De cualquier manera, la suma de las diferentes ayudas no podrá ser superior al gasto total de las familias en dicho concepto.

7.- Betekizun ekonomikoak

Eskatzaile bakoitzari dagokion tarte edo tramoaren diru-sarreraren arabera izango da, ondorengo taulan adierazten den eran:

7.- Requisitos económicos

El tramo en que se ubique cada solicitante resultará de los ingresos de la familia, según se indica en la siguiente tabla:

Errenta-mugak / Umbrales de renta			
Kide Kopurua Nº miembros	1.muga Euroak Umbral 1 €	2.muga Euroak Umbral 2 €	3.muga Euroak Umbral 3 €
1	8.143	10.668	14.826
2	13.350	17.377	25.308
3	17.567	22.820	34.352
4	20.201	27.069	40.796
5	23.232	30.717	45.598
6	26.717	34.241	49.224
7	30.724	37.576	52.810
8	35.333	40.882	56.380
+ 1	+3.500	+3.282	+3.562

Agindua, 2014ko urriaren 22koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolaratzeko ikasketa-beka eta -laguntzetarako 2014-2015 ikasturteko deialdia egiten duena – EHAA (205. zk.), 2014ko urriaren 28a

Orden de 22 de octubre de 2014, de la Consejera de Educación, Política Lingüística y Cultura, por la que se convocan becas y ayudas al estudio para la escolarización de estudiantes de niveles no universitarios para el curso académico 2014-2015 - BOPV, nº 205 del 28 de octubre de 2014

FAMILIA ERRENTAREN KALKULUA

ZERGA OINARRI OROKORRA + AURREZKIAREN
 ZERGA OINARRIA – KUOTA LIKIDOA + PFEZen
 menpean ez dauden diru-sarrerak edo salbuetsiak
 direnak

Familia unitatearen errenta maila zehazteko sarrera garbiak hartuko dira kontuan, eta sarrera garbien zenbatekoa kalkulatzeko, kendu egingo zaio zerga-oinarri orokorrari pertsona fisikoen gaineko errentaren azken aitortpeneko likidazioa. Banakako aitortpenen kasuan, kalkulua egiteko aitortpen bien batuketa

CALCULO DE LA RENTA FAMILIAR

BASE IMPONIBLE GENERAL + BASE IMPONIBLE DE
 AHORRO – CUOTA LIQUIDA + ingresos no sujetos a
 gravamen o exentos

A los efectos de determinar el nivel de renta de la unidad familiar, se tendrán en consideración los ingresos netos resultantes de restar a la base imponible general, la cuota líquida de la liquidación del último impuesto sobre la renta de las personas físicas declarado. En el caso de declaraciones

egingo da.

Estimazio objektibo edo zuzeneko estimazioko zerga-erregimenaren arabera enpresa jarduera eta jarduera profesionalen kasuan, errentaren zenbatekoa kalkulatzeko errentagarritasun errealeko irizpideak erabiliko dira.

Ulertuko da seme-alabek familia unitateko kide izaten jarraitzen dutela nahiz eta ikasketengatik bizikidetzaren printzipioa hautsita egon.

Familia unitateko kideak nor diren zehazteko kontuan hartuko da zein den familia horren egoera eskaria egiten den egunean.

8. Kenkariak

Bizikidetzaren unitatearen errenta zehaztu ondoren, aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera, ondoko kontzeptuak direla-eta egokiak diren zenbatekoak kenduko dira:

1. Bizikidetzaren unitatearen errentaren %20, kasu hauetan:
 - a) Eskatzailea guraso bakarrek bizikidetzaren unitate bateko kidea denean, baldin eta diru-iturri bakarra badu: inoren konturako lana, pentsioa edo ordaintzen diren elikagaiak.

Guraso bakartasuna familia-liburuarekin justifikatuko da guraso aitortu bakar baten

individuales, el cálculo será la suma de las dos declaraciones.

Si se trata de actividades empresariales y profesionales acogidas al régimen fiscal de estimación objetiva o al de estimación directa, la estimación de los rendimientos se hará aplicando criterios de rentabilidad real.

Se entenderá que los hijos e hijas forman parte de la unidad familiar aun cuando quiebren el principio de convivencia por razones de estudios.

La determinación de quienes componen la unidad familiar se realizará atendiendo a la situación existente a la fecha de la presentación de la solicitud.

8. Deducciones

Una vez obtenida la renta de la unidad convivencial, según lo dispuesto en el artículo anterior, se deducirán de ella las cantidades que correspondan por los conceptos siguientes:

1. El 20% de la renta de la unidad convivencial en los siguientes casos:
 - a) Cuando la persona solicitante sea miembro de una unidad convivencial monoparental o monomarental, siempre que tenga una única fuente de ingresos, ya sea el trabajo por cuenta ajena, rendimientos de actividades, la pensión o los alimentos devengados en su caso.

La condición de monoparentalidad o monomarentalidad se justificará con el

- kasuan, edo ebazpen judizialaren bidez bi guraso aitorturen kasuan.
- b) Eskatzailea umezurtza denean eta diru-iturri bakarra umezurtz-pentsioa bada edo beste bizikidetz-unitate baten mende badago.
2. Familiako kide konputagarri guztiek ekarritako diru-sarreraren % 50. Familiaren eusle nagusiaren eta haren ezkontidearen diru-sarrerak ez dira horretan sartzen.
3. 500 euro, familia-egoitzan bizi den anai-arreba bakoitzarengatik, eskatzailea barne dela, baldin eta familia-etxebizitzan bizi badira eta izaera orokorreko familia ugaria bada; kopuru hori 765 eurokoa izango da kategoria bereziko familia ugarietan. Eskatzailea bera bada familia ugariaren titularra, familia osatzen duten seme-alaben arabera konputatuko dira zenbatekoak.
4. 1.811 euro, legez onartutako % 33ko edo gehiagoko minusbaliotasunen bat duen bizikidetz-unitateko kide bakoitzarengatik, eskatzailea barne. Kenkaria 2.881 eurokoa izango da, minusbaliotasuna % 65ekoa edo goragokoa denean. Ikasleak berak badu % 33 eta % 65 arteko minusbaliotasuna eta mugikortasun mugatua badu, edo % 65eko edo goragoko minusbaliotasuna badu, kenkaria 4.000 eurokoa izango da.
5. 1.176 euro, unibertsitateko ikasketak egiten ari
- libro de familia en caso de un solo progenitor reconocido, o mediante resolución judicial en el caso de dos progenitores reconocidos.
- b) Cuando la persona solicitante sea huérfana y dependa económicamente de su pensión de orfandad o de otra unidad convivencial.
2. El 50% de los ingresos aportados por todas las personas computables, excepción hecha de los aportados por el sustentador o sustentadora principal y su cónyuge.
3. 500 euros por cada hermano o hermana, incluida la persona solicitante, que conviva en el domicilio familiar, cuando se trate de familias numerosas de categoría general y 765 euros cuando sean familias numerosas de categoría especial. Cuando sea la propia persona solicitante la titular de la familia numerosa, las cantidades señaladas serán computadas en relación con los hijos e hijas que la compongan.
4. 1.811 euros por cada miembro de la unidad convivencial, incluida la persona solicitante, que esté afectada de minusvalía legalmente calificada, de grado igual o superior al 33%. Esta deducción será de 2.881 euros cuando la minusvalía sea de grado igual o superior al 65%. En el caso de que sea el propio o la propia estudiante el o la afectada con un grado de minusvalía de entre el 33% y el 65% y que se encuentre en estado carencial de movilidad reducida, o con un grado de minusvalía igual o superior al 65%, esta deducción será de 4.000 euros.

den eta ikasketak direla-eta familiaren bizitokitik kanpo bizi den 25 urte baino gutxiago dituen anaiako edo arreba.

5. 1.176 euros por hermano o hermana menor de 25 años que por estudios universitarios resida fuera del domicilio familiar.

9.- Ebazpena.

Eskariak ebatzi eta emaitzak jakinarazteko ezingo da igaro 30 egun baino gehiago, eskariak aurkezteko epearen azken egunetik hasita. Baldin epe horretan interesatuei ez bazaie ebazpenik jakinarazten, zilegi izango dute ulertzea eskaria ezetsita dagoela administrazio-isiltasunez.

10.- Dirulaguntzen zenbatekoa.

Bi laguntza mota ezartzen dira, haurrak haurreskolan ematen dituen orduen kopuruaren arabera:

- Egonaldi laburra (5 ordu)
- Egonaldi luzea (8 ordu)

Ikasturte bakoitzean emango diren laguntzen zenbatekoa tarte hauen arabera izango da:

Egonaldi betea (8 ordu arte):

3 errenta-mugara arte: 30 €/hileko dirulaguntza emango zaie

> 3 Errenta-muga: Ez dute laguntzarik izango

Egonaldi partziala (5 ordu):

3. Errenta-mugara arte: 20 €/hileko dirulaguntza emango zaie

9.- Resolución.

El plazo máximo para resolver y notificar la resolución del procedimiento, no podrá exceder de 30 días desde el cierre de la presentación de solicitudes. El vencimiento del plazo máximo sin haberse notificado la resolución, legitima a las personas interesadas para entenderla desestimada por silencio administrativo.

10.- Cuantía de las subvenciones.

Se establecen dos tipos de modalidades o ayudas según el número de horas de estancia del o de la menor en la Haurreskola:

- Por estancia parcial (5 horas)
- Por estancia completa (hasta 8 horas)

La cuantía de las subvenciones a otorgar por cada curso, se ajustará a los siguientes tramos:

Estancia completa (hasta 8 horas):

Hasta umbral 3: Se les dará una ayuda de 30 €/mes

> Umbral 3: No tendrán ayuda

Estancia parcial (5 horas):

Hasta umbral 3: Se les dará una ayuda de 20 €/mes.



Iturritza 51 - 48240 Berriz
Tel.: 946 824 036 / 946 824 584
Faxa: 946 827 950
E-maila: udala@berriz.eus
P4802300F
www.berriz.eus

> 3 Errenta-muga: Ez dute laguntzarik izango

Banakako dirulaguntza edo laguntza ekonomikoak, xede horretarako dagoen aurrekontuaren menpe egongo dira. Eskaerak aurkezteko epe bakoitzerako, urte osorako dagoen aurrekontuaren erdia izendatuko da. Eskaera guztiak sailkatuta, guztien batuketa, eskaera eperako eskainitako aurrekontu kopuru osoa baino handiagoa bada, proportzio berean murriztuko dira zenbateko horiek, aipatutako kopurura heldu arte.

11.- Dirulaguntza zuritzeko dokumentazioa.

Dirulaguntza zuritzeko erabiliko den dokumentua izango da zein ere haurreskolarako laguntza eskatzen den eta hari dagozkion hileko errezeptoak ordaindu izana frogatzen duen banku ziurtagiria, errezepto ordaindua edo faktura

AZKEN XEDAPENA

Araudi honen iraupena, 2016ko urtarriletik 2016ko abenduaren 31ra arte izango da, atzeraginezko ondorioekin eta zenbatekoa gehienez: 3.000€ 2016 urtea.

> Umbral 3: No tendrán ayuda

Las subvenciones o ayudas económicas individualizadas, estarán supeditadas en cualquier caso al límite cuantitativo presupuestado a tal fin, asignándose como límite para cada uno de los plazos de presentación de solicitudes la mitad de lo presupuestado a tal fin para todo el año. Una vez clasificadas todas las solicitudes, si la suma de todas ellas resultara superior a lo presupuestado para el plazo de presentación de solicitud que se trate, todas ellas se verían reducidas en la misma proporción, hasta alcanzar la cifra indicada.

11.- Documentación justificativa de la subvención.

La documentación justificativa será la factura y/o recibo pagado o justificante bancario del pago de las mensualidades a la Haurreskola para la que se solicita la ayuda.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente reglamento tiene un periodo de vigencia, con efectos retroactivos de enero 2016 al 31 de diciembre del 2016, con un importe máximo de: 3.000€ año 2016



Iturritza 51 - 48240 Berriz
Tel.: 946 824 036 / 946 824 584
Faxa: 946 827 950
E-maila: udala@berriz.eus
P4802300F
www.berriz.eus

AITORPEN ERANTZULEAK ENPRESA

..... jaun/andre honek,
ENA/IFK honen jabeak:,
erakunde honen izenean eta ordeaz ari naizenak:
....., zeinaren IFKa den:
....., eta egoitza soziala helbide honetan
duena:

NEURE ARDURAPEAN AITORTZEN
DUT, ordezkatzeko dudako entitateak:

- Ez duela jasotzen inongo organismo,
erakunde edo pertsona partikularrengandik
beste ezein dirulaguntza edo dirurik,
dirulaguntza eskatzen duen jardura bererako.
- Eskatua/k/Jasoa/k duela/dituela beste
dirulaguntza edo diru bat/batzuk dirulaguntza
eskatzen duen jardura bererako, hauek
direlarik emaitza/k eta zenbatekoa/k:

DECLARACIONES RESPONSABLES EMPRESA

D/D^acon
DNI/CIF nº....., en nombre y
representación de la
entidad....., con CIF y
domicilio social en
.....:

DECLARO BAJO MI
RESPONSABILIDAD que la Entidad que
represento:

- No dispone de ninguna otra subvención o
ingreso afectado para la actividad para la
que solicita subvención, otorgado por otro
Organismo, Entidad o particular.
- Ha solicitado/recibido otra(s) subvención(es)
o ingreso afectado para la actividad para la
que solicita subvención, otorgado por y con
un importe de

ERAKUNDEA Organismo	Eskatutako zenbatekoa Importe solicitado	Jasotako zenbatekoa Importe concedido

Data/Fecha

Sinadura/Firma

Sello



Iturritza 51 - 48240 Berriz
Tel.: 946 824 036 / 946 824 584
Faxa: 946 827 950
E-maila: udala@berriz.eus
P4802300F
www.berriz.eus

ESKATZAILEA

.....
Jaun/andre honek, ENA/IFK honen jabeak:
....., laguntzaren eskatzaile
bezala:

NEURE ARDURAPEAN AITORTZEN DUT honekin batera doan eskari-orrrian adierazi ditudan datu guztiak egia direla eta badaki dala datu horietan ez den gauzarik balego aski motibo litzatekeela hori laguntza ezesteko edo atzera botatzeko.

Halaber, adierazten dut eskatzaile honen familia unitateak (markatu dagokion laukia):

- Ez duela jaso beste ezelango dirulaguntzarik laguntza hau eskatzen den helbururako.
- Jasota daukala beste laguntza bat/batzuk laguntza hau eskatzen den helburu berdinerako. Kasu horretan, hauek dira:

- Jasotako zenbatekoa/k:
- Laguntza emailea/k:

SOLICITANTE

D/D^a....., con
DNI/CIF nº, como
solicitante de la ayuda:

DECLARO BAJO MI RESPONSABILIDAD que son ciertos los datos consignados o incorporados a la solicitud que se adjunta, siendo conocedor de que la inexactitud de las circunstancias declaradas dará lugar a la denegación o revocación de la ayuda.

Asimismo, manifiesto que la unidad familiar de la que formo parte (marque con una cruz el cuadro correcto):

- No ha obtenido ninguna ayuda para la finalidad para la que se solicita la subvención.
- Ha obtenido otra/s ayuda/s para la misma finalidad para la que se solicita la subvención. En cuyo caso, estos son los:

- Importe/s recibido/s:
- Órgano/entidad/es concesionaria/s:

Data eta sinadura / Fecha y firma



Iturritza 51 - 48240 Berriz
Tel.: 946 824 036 / 946 824 584
Faxa: 946 827 950
E-maila: udala@berriz.eus
P4802300F
www.berriz.eus